

GUKA Euskaraz, lehenengo pertsonan, pluralean



Gu gara. Euskara darabilgunak, euskaraz bizi gura dugunak, harremanak euskaraz egin gura ditugun pertsonak. Ez gara siglak, ez gara egiturak, ez gara estatistikak, pertsonak gara, Durangaldekoak eta Euskal Herrikoak. Urteak daramatzagu euskara herri-bizitzara ekarri guran, eta oraindik ere, euskaraz bizitzeko lekuak berreskuratzeko ahaleginean dihardugu. San Fausto jaiak ditugu orain buruan, pertsonak, jaiak eta bizipoza batzen diren lekuan egon gura dugulako.

Hika, zuka, berorika... Guka! Guka berba egin gura duzuen guztiontzat gonbidapena duzue hau, San Fausto jaietako txosnagunean izango dugun lekura etorri zaitezten. Baina etorri bakarrik ez, guka-guka, elkarrekin lekua egin dezagun proposamena ere baduzue: berdin muntaketan edo txandetan parte hartuz, zein jaigiroan bisita eginez. Zer aurkituko duzun bertan? Jan-edana eta aurrez aurre euskaraz mintzatu gatzazkizun pertsonak, pluralean.

Jaiak gozatzeko egitarau ugari antolatu da aurten ere Durangon. Aukeran dituzue txosnagunearena zein udalarena. Euskarazko ahalik eta hitzordu gehienak gozatzeko dei egiten dizuegu, eta bereziki Gukan elkartzeko antolatu ditugunetan parte hartu dezazuen: urriaren 13an prestatuko dugun paella janez, egun berean eguerdirako antolatu ditugun umeen tailerretan seme-alabekin parte hartuz, eta urriaren 20an 13:30etan Kantulagunean kantuan eginez.

Han izango gara gu, atsegin baduzu zurekin. Egin dezagun Guka!

Harremanetarako: berbarotaldea@gmail.com



Berbaro taldea:





OLGETAN LUDOTEKA

“Txikitan olgetan, handitan benetan, orain eta gero euskeraz berbetan...” abestiarekin kanta

eta dantza aritu dira ehundik gora ume Udan Olgetan udalekuetan. Hainbat ekintza izan dituzte uztail osoan zehar eta oporrak igaro ondoren, guzti horiek gogoratzeko jaialditxo bat egingo dugu urriaren 11n, Plateruena Kafe Antzokian. Berrito ere elkarrekin egoteko tartea izango dugu, ordukoak gogoratu argazki emanaldiaren bitartez, merendola tartean eta beste sorpresaren bat gehiago!

Jaialdi horrekin amaiera eman nahi diogu udako ekintzari eta, bide batez, urte osoan Olgetan proiektuan parte hartzeko gonbidapena egin, udalekuetan gurekin parte hartu duten guztiei. Urriaren 29an, San Fausto jaien ondoren, hasiko da ikasturte berriko Olgetan eta, aurten, berrikuntzekin dator; bai astean zeharreko ludoteka eta baita asteburuetako ikuskizunak ere.

Ludoteka astelehenetik asteazkenera mantenduko dugu, 17:00etatik 19:00etara bitarteko ordutegian, baina eskenatoki-ra bueltatuko da eta formatuan aldaketak nabaritutako dituzue. Ohiko txokoez gain, ekintza bereziak tartekatuko dira astero eta gai jakin batzuk ere landuko dira, 3-8 urte bitarteko umei zuzendutakoak. Ludoteka, jolaserako gunea da, baina gure helburua euskara sustatzea denez, hori lortzeko bitartekoak jarriko ditugu eta umeak Plateruenera hurbilduko ditugu euskarazko aisialdiaz gozatzerako.

Asteburuetako ikuskizunak, aurten, Irrien Lagunak Klubarekin elkarlanean burutuko ditugu, hileko lehenengo igandean, arratsaldeko 17:00etan, abenduaren 2an hasita. Irrien Lagunak Klubak sustatzen dituen balioak eta filosofiak gure helburuekin lotura estua dute eta, hortaz, garrantzitsua iruditu zaigu beraiei tartetxo bat eskaintzea Olgetan proiektuan.



IKUSKIZUNAK

- **Abenduak 2:** Eguzkiaren bidai
- **Urtarrilak 6:** Kultura plazara
- **Otsailak 3:** Laguntasunaren sekretuak!
- **Martxoak 3:** Mundutik plazara, plazatik mundura
- **Apirilak 7:** Irrien lagunekin kanta eta dantza



PREZIOAK	Arruntak Plateruena salgai	Berbaroko bazkideak eta Irrien Lagunak Klubeko harpideak - Berbaroren bulegoan salgai
Eguneko sarrerak azaroaren 16tik aurrera	5 euro	3 euro
5 ikuskizunetarako bonoak azaroaren 16ra arte	18 euro	12 euro

Irrien Lagunak Klubeko harpidetza berriarekin bonoa opari!

Ikusten duzuenek aurten ere topera izango dugu Olgetan. Animatu eta hurbildu Plateruenera gozatzerako!



“Futbolean Oinarritik Euskaraz”

egitasmoaren 2. edizioa ipini du abian Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak

Itzarri Consulting enpresak Durangaldeko futbol klubetako eta ikas-tetxeetako 32 entrenatzaile euskaraz trebatuko ditu, beraien jokalariz gazteekin entrenamenduetan euskaraz jardun dezaten. Talde 2 eratu dira, bat Durango-lurretan 14 lagunek osatua, eta beste bat Abadiño-Elorrio-Berriz-Zaldibarreko 18 lagunek osatua. Entrenatzaileei baliabide teknikoak emateaz gain, ikasitakoa euren jokalariz gazteei zelan transmititu ikasiko dute.

Itzarri Consulting enpresak planifikatu eta emango ditu prestakuntza-saioak

gure elkartean laguntzarekin. Berbarorentzat garrantzitsua da-eta kirol munduan euskara txertatzeko urratsak ematea, baliabideak ipintzea. Beraz, hasieratik hartu zuen konpromisoa egitasmoan parte hartzeko.

Aurten, gure elkartetik, ekimena Durangoko ikastetxeetara zabaldu dugu eta harrera ona izan du, eskola guztiek parte hartu ezin izan duten arren. Asmoa da eskolek prestakuntza saio hauek euren plangintzan sartzea, ikasturtero. Saiok amaitutakoan, Berbarotik jarraipena egingo diegu egitasmoan sartu diren taldeei, eskainitako

baliabideak, egunean-egunean, entrenamendu eta partidetan zelan gauzatzen diren ikusteko.

Berrikuntza moduan, aipatu, ikastaroa egindako entrenatzaileekin zerrenda bat egingo dela; horrela, aurrerantzean klubak edo ikastetxeren batek euskarazko trebakuntza jaso duen entrenatzaile bat behar badu, lan poltsa horretara jo ahalko du.

Asmoa dugu, etorkizunean, egitasmoa beste kirol batzuetara zabaltzeko.



SALEROSKETAK BE, EUSKARAZ

ITG taldeak antolatutako ekimen honek Durangoko herritarren eguneroko erosketetan euskararen erabilera bultzatu gura du.

Zertan datza?

EUSKERA hutsean erosketa tratua egiten duzuen bezeroi, edo horretan ahalegintzen zaretenoi, merkataria zozketa baten parte hartzeko txartel bat emango dizue, eta hile birik behin euskarazko aplikazioak dauzkan iPad bat zozketatuko da.

Zein lekutan?

Egitasmo honetan Durangoko edozein merkatal gunek parte har dezake. Irailetik hasita eta bi hilerik behin, parte hartu nahi duen merkataria bakoitzari 300 txartel emango zaizkio. Beraz, martxan dago jada ekimena. Txartelekin batera pegatina bat banatu zaie, atean jartzeko, horrela, ekimen honetan parte hartzen duela erakutsi ahalko du. Hori horrela, pegatina duen komertzioan euskaraz aritzeko aukera daukazu, eta horrela eginez gero, zozketan parte hartzeko zenbaki bat jasoko duzue.

Zozketak

Azaroaren 1ean egingo da lehendabiziko zozketa eta, ostean, beste 5 zozketa egingo dira, bi hilerik behin. Zozketaren berri izateko bide bi daude:

- Egun berean jakiteko, Durangaldeko bide digitalan: www.anboto.org eta www.durangon.com
- Egun gutxi batzuk beranduago, ekimen honi atxikitutako merkatal gunetan nahiz www.bizieuskeraz.com webgunean.

Informazio gehiagorako:
www.bizieuskeraz.com





TOPAGUNEA II.KONGRESUA

Topagunea, Euskara Elkarteon Federazioan hausnarketa prozesuan aritu gara azken urteetan eta, prozesuari nolabaiteko amaiera emateko, II. Kongresua egingo dugu azaroaren 17an Bilbon.

Berbaro Topaguneako Zuzendaritza Batzordeko kide izan da urte askoan. Azken urteotan Lehior Elorriaga izan da Berbaroko ordezkaria zuzendaritzan.

Nola bizi izan duzu zuzendaritza?

Duela hiru urte hasi nintzen Berbaron lanean. Urte horretan Berbarok 20 urte beteak zituen eta gogoeta prozesu baten ondorioak atera berriak. Gogoeta horren ondorioetako batek adierazten zuenez, Berbaro Taldeak (Berbaro, Anboto, Plateruena) kohesio eta indartze premia zuen. Federazioan berriz, Euskal herriko elkarteak dira kohesio eta indartze hori behar dutenak. Beraz, bide onean goazela esango nuke.

Zer helbururekin egin zen I. Kongresua?

Nondik gatoz eta nora goaz galderei erantzuten saiatu ginen. Urte beteko prozesu parte hartzailea egin genuen eta emaitza "Oinarriparrak" txostena izan zen.

Zer landuko da II. Kongresu honetan?

Bigarren kongresu honetarako bost ardatzetan oinarritu den dokumentua prestatu dugu: "Eraldabideak: Federaziotik mugimendura". Eraldabide hauen bitartez, prozesu hau ere parte hartzailea izatea nahi dugu.

Zertan eragingo die herri mailan elkarteei?

Etorkizunean garrantzitsua izango da orain erabakitzen duguna. Eragina izango baitu herrietako jardunbidean, finantziazioan, komunikazioan... Egunero eztabaidatzen ditugun hainbat puntu bero izan ditugu kontuan "Eraldabideak" dokumentua prestatzerakoan.

Nola parte hartuko dute elkarteetako kideek?

Pasa den astean aurkeztu genuen txostena 5 herritan: Andoain, Gasteiz, Bilbo, Elgoibar eta Atarrabian. Orain elkarte bakoitzak bere lanketa egingo du herrian. 50 galdera prestatu ditugu elkarteetan lantzeko eta, ondoren, urriaren 20an nazio mailako mintegia egingo da, Kongresurako guztia landuago izateko.

Kongresua Bilbon izango da azaroaren 17an.

Bai. Aurretik egindako lanak amaitutzat emateko eta guztiok batu eta ondo pasatzeko eguna izango da. Denok zaudete, beraz, gonbidatuta prozesu osoan zehar parte hartzera.



KANTULAGUN

Hirugarren urtea izango da Kantulagunak hilero-hilero kantari batuko garena. Gonbidatu bereziak, kalez-kaleko kantu saioak, bazkariak...

Dinamizatzaile lanetan gustora dabilta hasieratik Ugaitz Catalan Berbaroko bazkide eta zuzendaritzakidea eta Beñat Aiertzagüena musikaria.

Nola sartu zineten Kantulagunen?

Nire kasuan Berbaroko zuzendaritzan nengoela proiektu berri honetan parte hartzeko gonbitea jaso ostean. Beti gustatu izan zaidanez abestea, bada, oraindik ere honetan jarraitzen dut.

Hirugarren urtea eta gogotsu jarraitzen duzue?

Oso gogotsu, jendearen erantzuna oso ona izan delako. Horrek asko laguntzen du, gainera, Kantulagunen elkartzen garenak oso konstanteak gara eta elkar ezagutzen dugunez jada, saioak egitea askoz ere errazagoa giften zait niri behintzat.

Gunea eguna Azkoitian, lurretan Kantulagun... beste herri batzuetan ere aritu zarete. Zerk eragiten du jendearen parte hartzea? Zein da sekretua?

Jendeari beti gustatu izan zaio abestea, bazkal ostean, kalean potoan... eta gaur egun hori gero eta gutxiagotan ematen da. Kantulagun horretarako aukera bat da, lasai eta era ez formalean abesteko aukera. Gainera, ez du esfortzu handirik eskatzen, ostegunetan letra liburuarekin azaldu abestera, eta kitto! Inongo konpromisorik gabe, ahal duzunean

azalduta nahikoa da, ez duzu gainera ahots onik izan behar, ezta belarri onik ere; behar den bakarra kanturako gogo da. Gainera, 4 hilabetetik behin artista ezagun batzuk zuzenean entzuteko aukera izatea ere oso erakargarria da.

Laguntzaileak:

